




Burdin Harana
Legazpi - Gipuzkoa
www.lenbur.com



HEZKUNTZA ESKAINTZA
Erreserbak: 685 76 83 07 - 645 72 38 37



Burdin Harana
Legazpi
Gipuzkoa

DBHO

Batxilergoa

Talde bakoitzari egokitutako txangoak antolatzen ditugu. Talde handiak hartzeko gaitasuna daukagu. Hemen dituzue proposamen batzuk, baina bai ordutegia eta baita edukiak ere moldatu daitezke.

GUNEAK

Euskal Burdinaren Museoa.
Mirandaolako Burdinola.
Etxebizitza.
1950ko Eskola.
Lantegia.

UNITATE DIDAKTIKOAK

Bisita egin baino lehenago, jakin-mina pizteko eta bisita amaitu ondoren, ikusitakoari etekina ateratzeko unitate didaktikoak ditugu.

ZERBITZUAK

Mirandaolako Parkean: Haur parkea, frontoia, iturriak, komunak, merenderoa, taberna, etabar.
Herrian: Arkupeak eta aterpedun frontoia.

PROPOSAMENAK

Mirandaola + Chillida Lantoki
Mirandaola + langileen Ibilbidea



Chillida Lantokia:

Industria eta Arteak duen erlazioa aztertzea, artean erabilitako materialen garrantzia eta lantzeko teknika desberdinak aztertzea. Sormen prozesuak aztertzea, bai burdinezko eskulturetan eta baita ere papelean egindako artelanetan: serigrafia, litografia etabar.



Lantegiak eta bizitza soziala 1950.urtean:

XVIII.mendetik XX.mendera eman zen iraultza industrialia ezagutzea, garaian eman ziren aldaketa handiak aztertzea. Frankoren Diktadurapean bizi izan zen egoera aztertzea. 1950ko famili arrunt baten bizimoduan murgiltzea. Gizartea nola aldatu den aztertu eta jakin mina sortzea. Belaunaldien arteko harremana sustatzea.



Burdinola Ingelesez, natiboarekin:

Inglesa egunerko bizitzan erabili eta ikastea. Euskal Herrian burdinolak izan zuten garrantziz jabetzea.





Burdin Harana
Legazpi - Gipuzkoa

DBHO

CHILLIDA LANTOKI

Helburua

Industria eta Arteak duen erlazioa aztertzea, artean erabilitako materialen garrantzia eta lantzeko teknika desberdinak aztertzea. Sormen prozesuak aztertzea.

Prozedura

Industria eta Artearen arteko harremana erakusten da, sari asko jaso dituen berriztatuko lantegi zahar honetan. Eduardo Chillida, eskultore euskaldunaren bitartez, bai burdinezko eskulturak eta baita ere arte grafikoaren sekretuak ikasiko ditugu (serigrafia, litografia, etabar.)

Museoak bi gune ditu, lehenengoan burdinari buruz arituko gara, non Eduardo Chillidaren forja tailerra eta lantegiko Forja Handiko makinak ikus daitezke besteak beste. Beran eskultura erraldoiak nola gauzatu ziren ikusteko aukera izango dugu eta Chillidaren sormen prozesu osoa jarraituko dugu. Bigarren solairuan, ordenadore eta bestelako ikusentzuzkoen bitartez Papelaren mundu magikoan murgilduko gara, grabitazioak zer diren ikasiz eta papel tailerrean murgilduko gara (paper errota zaharra, tornua, plantxak...)

Unitate didaktikoak: Hezkuntza sailan eskatu, ikerketa@lenbur.com // 943 73 18 95

ikerketa@lenbur.com // www.lenbur.com // 943 73 18 95 // 943 73 04 28



Batxilergoa: Planifikazioa

Non:

Legazpin, Lantegia-Chillida

Noiz gomendatua:

Urte osoan

Iraupena:

Ordu bat.

Prezioa:

2 euro.



Burdin Harana
Legazpi - Gipuzkoa



DBHO

LANTEGIA ETA BIZITZA SOZIALA 1950.URTEAN

Helburua

XVIII.mendetik XX.mendera eman zen iraultza industrialia ezagutzea, garaietan eman ziren aldaketa handiak aztertzea. Euskal Herriko industrializazioa eta herrietan eman zen lan espezializazioa ikustea. Frankoren Diktadurapean bizi izan zen egoera aztertzea. Artea eta industriak izan zuen erlazioa aztertzea, Chillidak burdinezko eskulturak lantegian nola egin zituen ikastea, Chillidaren paper-tailerraren bitartez imprenta munduan ezagutzea.

Prozedura

Poliki-poliki burdinola zaharrak isten joango dira makina modernoengatik aldatuz, eta honek gizartean ekarritako aldaketa sakonak aztertuko ditugu. Honetarako Lantegi zahar batetan sartuko gara, industrializazioaren berezitasunak eta Euskal Herrian egindako produktuak aztertuz, herriz herriko espezializazioaz jabetuko gara (ikatetxe bakoitzaren herria aztertuz gertutasuneko historiak kontatuko ditugu), besteak beste.

Lantegiak geroz eta handiagoak egin ziren eta nekazal herrietatik familia asko etorri ziren Euskal Herrira lan egitera. Ondorioz, herriak asko handituko dira. Aiton-Amonen eskolan, 1950 gizartea nolakoa zen aztertuko dugu garaiko ikasgela batetan murgilduz. Nahi izanez gero langileen etxebizitza ere ikusteko aukera dago

Non:

Legazpin, herrigunean, Lantegia-Chillida, Aiton Amonen eskola, langileen etxebizitza

Noiz gomendatua:

Urte osoan

Iraupena:

Ordu bat

Prezioa:

3,5 euro (Etxebizitza ikusteko kontsultatu)

Unitate didaktikoak: Hezkuntza sailan eskatu, ikerketa@lenbur.com // 943 73 18 95



Burdin Harana
Legazpi - Gipuzkoa



DBHO

BURDINOLA ZAHARRETATIK LANTEGIETARAKO IBILBIDEA

Helburua

XVIII.mendeko gizartea ezagutzea eta XX.mendean sortutako Industri Iraultza aztertzea. Hau da, nekazal eta artisau gizarte batetatik industrializatutako gizarterako ibilbidea egingo dugu. Gizarte bakoitza nolakoa den eta zergatiak aztertzea eta gauzak nola aldatu diren jabetzea da bisitaren helburua.

Prozedura

Euskal Burdinaren Museoa bisita pedagogiko eta jokoen bitartez burdinaren garrantziaz jabetuko gara. Parkea zeharkatu eta Mirandaolako Burdinolan murgiltzeko aukera izango dugu, bertan, nahi izanez gero, Olagizonak egongo dira gure zain, XVI mendean bezala jantzita burdinola martxan jarriko digute ikuskizun bizia eskeiniz. Esperientzia ahaztezina!! Nahi izanez gero Olagizonek olapintxo prestatu diezagukete (txistorra burdinola labean eginak, baserriko ogia eta ura).

Bisitaren bigarren atala herrigunean egingo dugu, Langileen ibilbidea deritzon bisitan. Poliki-poliki burdinola zaharrak isten joango dira makina modernoengatik aldatuz, eta honek gizartean

ekarritako aldaketa sakonak aztertuko ditugu. Honetarako Lantegi zahar batetan sartuko gara, industrializazioaren berezitasunak eta Euskal Herrian egindako produktuak aztertuz, herriz herriko espezializazioaz jabetuko gara (ikaketxe bakoitzaren herria aztertuz gertutasuneko historiak kontatuko ditugu), besteak beste.

Lantegiak geroz eta handiagoak egin ziren eta nekazal herrietatik familia asko etorri ziren Eukal Herrira lan egitera. Ondorioz, herriak asko handitu ziren Aiton-Amonen eskolan 1950 gizartea nolakoa zen aztertuko dugu garaiko ikasgela batetan murgilduz. Etxebizitza ere ikusteko aukera.

Non:

Legazpin, herrigunean, Mirandaola Burdinola, Euskal Burdinaren Museoa, Lantokia, Aiton-amonen eskola, langileen etxebizitza

Noiz gomendatua:

Urte osoan.

Iraupena:

Goiz osoko plana

Prezioa:

6 euro. (Burdinola eta etxebizitza galdetu)

Unitate didaktikoak: Hezkuntza sailan eskatu, ikerketa@lenbur.com // 943 73 18 95

ikerketa@lenbur.com // www.lenbur.com // 943 73 18 95 // 943 73 04 28



Burdin Harana
Legazpi - Gipuzkoa



DBHO

BURDINOLA INGELESEZ, NATIBOAREKIN

Helburua

Inglesa egunerko bizitzan erabili eta ikastea. Euskal Herrian burdinolek izan zuten garrantziaz jabetzea, garaiko teknologia aztertuz.. Olagizona, meatzari eta ikazkinaren bitartez gizartea ezagutzea. Energi mota desberdinak ezagutzea. Burdina material bezela aztertzea. Jankin-mina zientifikoa piztea.

Prozedura

Bisita Euskal Burdinaren Museoan hasten da, gaiari sarrera emanez (euskaraz). Ondoren, Parkea zeharkatu eta Mirandaolako burdinolara abiatuko gara. Bertan, Kevin Olagizona egongo da gure zain, Irlandatik etorri berria duguna. Bera eta beste olagizonen eskutik burdinolen funtzionamendua aztertuko dugu.

Nahi izanez gero Olapintxo goxoa ere prestatu digukete, txistorra burdinolaren labean egina eta baserriko ogia, goxoa benetan!

Unitate didaktikoak: Hezkuntza sailan eskatu, ikerketa@lenbur.com // 943 73 18 95

Non:

Mirandaolako Parkean, Euskal Burdinaren museoa, Mirandaolako Burdinola

Noiz gomendatua:

Urte osoan zehar

Iraupena:

Ordu bat

Prezioa:

Taldearen arabera.



Euskal Burdinaren Museoa

Maila honetan, Euskal Burdinaren Museoa lau guneetan antolatuko dugu bisita:

1. Txondorra:

Ikazkinen munduan murgilduz, txondorra zer den eta nola egiten den ikusiko dugu, pago lepatuak zer diren, etabar.

2. Meategia:

Meatzarien mundua ezagutzeko maketa handi bat erabiliko dugu, non meatzarien bizimodua, zergatia etbar aztertuko ditugu.

3. Objektuen jolasa:

Burdinezko piezen bitartez jolasean Euskal Herrian burdinak izan zuen garrantziaz jabetuko gara.

4. Burdinolak Euskal Herrian:

Modulo interaktibo baten bitartez, talde bakoitzaren herrian dauden burdinolak ikusiko ditugu eta ikasle bakoitzari gertuko zaion informazioa eskeiniko diegu modu dibertigarri baten bitartez.

Mirandaolako Burdinola

Olagizonak ongi etorria egingo digute Mirandaolako burdinolaren atarian, beren soineko luze eta txapel handien zergatia kontatuko digute eta burdinolara sartzera gonbidatuko gaituzte. Haurrentzako leku magikoa da hau, bertan sutegia gorri-gorri, hauspoak gora eta behera eta mailua dinbilin danbalan. Burdina landu ondoren hurrei ezpata bat nola egiten den erakutsiko diete besteak beste. Ahaztu ezinezko esperientzia!!

Energi mota desberdinak aztertzeko leku aproposa da eta batez ere energia hidraulikoa eta makina sinpleak aztertzeko modu oso egokia.

Burdina material bezela dituen aztertzeko aukera izango dugu: gogorra edo biguina da?

Bisita amaitzeko, Mirandaolako burdinola ondoan dagoen elizatzonan, Olagizonek Mirandaolako Kontaira kontatuko digute.

Chillida-Lantokia

Museoa bi guneetan banatuta dago, lehenengoan burdinari buruz arituko gara eta bigarrean berriz papelari buruz (serigrafiak, litografiak, etbar zer dira nola egiten dira etabar.)

Langileen etxebizitza

San Inazio langile auzoan kokatzen da. Etxean ez dago telebistarik, ez frigorifiko ezta labadorarik ere, garaiko bizimodua ezagutzeko leku bikaina!



Aiton Amone eskola

Arbelatxoak, ikasmahaiak eta entziklopediak... detaile bakoitza bere lekuan, ordena zorrotzean kokatuta, ikasleak denboraren makinan, 1950. urteko eskolan murgilduko dira, non zurruntasuna, disciplina eta erligioak balore garrantzitsuenak ziren, non neskak eta mutilak eskola desberdinetan ikasten zuten, gizartean bakoitzak zuen "funtzioa" betetzeko.

Ikasleek garaiko materiala aztertuz gizartea nola aldatu den aztertuko dute, garaiko Zigorak ezagutzeko dituzte eta aiton amonen jolasak ere bai, besteak beste.





Burdin Harana
Legazpi
Gipuzkoa

LENBUR
FUNDATZIOA

Zerbitzuak

HERRIGUNEA

Eguraldi txarra eginez gero herrira joatea gomendatzen dugu, herriko enparantzan, kotxerik gabeko gunea dugu non, haur parkea, arkupeak, aterpedun frontoia, komunak, iturria, tabarnak, etabar dauden.

BIDEOAK

<http://www.youtube.com/watch?v=VbJjHdAc9wk>
http://www.youtube.com/watch?v=A1PL_g_0asY

BISITATU GURE WEBGUNEA:

WWW.LENBUR.COM

ATERPEA

Bi eta hiru eguneko bisitak antolatzen ditugu.
<http://santabarbaraaterpetxea.com>
675 70 92 47

Mirandaolako Parkea



Mirandaolako Parkea, kotxerik gabeko gunea da eta eguraldi ona eginez gero leku bikaina txango bat egiteko. Bertan, haur parkea, frontoia, iturriak, komunak, merenderoa, taberna, etabar. daude. (taberna astewartetan itxita)

Gainera nahi izanez gero, jolasak ere baditugu: pista jokoak, paratxuta, sokarira, toka, etabar.

Mirandaolako Parkea herritik bost minututara dago, herri irteeran Oñatirako bidean. Oinez, hurrekin 30 minutura.

Bertan dauden gunek: Euskal Burdin Museoa eta Mirandaolako Burdinola. Oso gertu Artzantzaren Ekomuseoa eta Ogiaren Txokoa.



Pista jokoak





Burdin Harana
Legazpi
Gipuzkoa

Nola Iritsi

Bisitaldiari etekina ateratzeko proposamena

HELBURUAK:

Bidaia planifikatzen eta antolatzen ikasi, geografia ezagutzuz, mapak interpretatuz, meteorologia eta abar.
Bisitatu beharrekoa aurrez ezagutu, eta informazioa eskatu museoko Hezkuntza Sailari edo Mirandaolako Informazio bulegoari.
Landuko diren gaiekiko jakin-mina piztu.

PROZEDURAK: (fitxen ereduak eskatu)

Bisitaren aurretik:

- Ibilbidearen eskema egin: zer ikusiko den, bisitaldiaren iraupena antolatu, ordutegiak, ekintzak etab. Programazio hau talde ezberdinetan antola liteke, eta ondoren, talde bakoitzak berea ikaskideei azaldu
- Legazpira nola iritsi gaitezkeen pentsatu, eta horretarako zein garraiobide erabil dezakegun aztertu. Kostu ekonomikoa nahiz ingurumenari dagokiona aztertu.

Bisitaldian zehar:

- Ikerketa talde bakoitzaren xedea informazioa nahiz argibideak jaso, eta jarraian, hau topatzea eta kokatzea izango da.

Bisitaldiaren ondoren:

- Talde bakoitzak aurrez egindako galderak erantzungo ditu.
- Ikaskideek lortutako ondorioak eta emaitzak aztertuko dituzte elkarrekin, eta hauen ebaluazioa egingo dute

